

ESANAK

JOSEBA PERMACH
(Batasuneko bozeramailea)

«Mingarriak izan dira Imazen hitzak; Batasuna jasaten ari dena ez dugu inorentzat nahi»

«PPko legebiltzarkideen eserleketan gerrako gidaliburuak eta armategi militarra gordetzen dira»

JOSU JON IMAZ
(Eusko Jauriaritzako bozeramailea)

«Batasuna legez kanpo utzi nahiak eskubide politiko objektiboen murrizketa agerikoa esan nahi du»

«CGPJren erabakia gehiengo txiki batek ekarri du»

ANGEL ACEBES
(Espainiako Justizia ministroa)

«Gurekin hitzartutakoa zalantzan jarriz, PSOE oker jokutzen ari da; leiala izan behar du»

JESUS CALDERA
(PSOEk bozeramaile Kongresuan)

«Legeak aldatu behar dira, terrorismoa defenditzen dutenek erabil ez ditzaten»

PASQUAL MARAGALL
(PSCko presidentea)

«Batasuna legez kanpo utzi gabe ere, badaude moduak alderdi horren ondorio negatiboak saihesteko»

BEGOÑA LASAGABASTER

Eako diputatua Madrilgo Kongresuan

«Ez du gatazka konpontzen lagunduko»



Begoña Lasagabasterren iritziz, Alderdi Politikoen Lege berriak «ez du batere lagunduko gatazka konpontzen». Gainera, CGPJn bozka partikularrak egon izanak aniztasun politikoan eta askatasun ideologikoan «lege alorreko zalantzak» daudela erakusten du, Lasagabasterren arabera.

OSCAR MATUTE

EB-IUko legebiltzarkidea Gasteizen

«PPren autoritarismoa adierazten du»



Oskar Matuteren arabera, Alderdi Politikoen Lege berria «PPren autoritarismoaren adierazle da». Gainera, «botereen arteko banaketarik ez dagoela» erakusten du. «Oso harrigarria da European, blokeei dagokienez, botere judiziala eta politikoa horren antzekoak izatea».

JOSEP HUGUET

ERCKo bozeramailea 'Parlament'-ean

«Agian, PP legez kanpo utzi ahalko da»

Josep Hugueten arabera, Alderdi Politikoen Lege berriarekin «agian, PP legez kanpo utzi ahalko da, hilketengatik kondenatutako buruzagiak dituzten eskuin muturreko taldeak biltzen baititu bere baitan». Gainera, Alderdi Politikoen Lege berriak «elkartzea bezalako askatasun eta eskubide demokratikoak urratzen ditu», Josep Huguetek atzo salatu zuenez.

JONAN FERNANDEZ

Elkarri-ko koordinatzailea

«Demokraziaren oinarritzko zutabeen galbidea da»



Jonan Fernandez iritziz, Alderdi Politikoen Lege berria «demokraziaren oinarritzko zutabeen galbidea» da, «alderdi konkretua utzi nahi baitu legez kanpo». Fernandez ustez, CGPJk aurreproiektuaren zirriborroarekin izaniko jarrera «politikoki, etikoki eta estetiki beldurgarria da».

Sektore aurrerakoia bat dator CGPJk onartu txostenaren lerro nagusiekin

Hiru puntu garrantzitsurekin ez dagoela ados berretsi du, eta «inkonstituzionaltasun itzal tinkoak» ikusten ditu zenbait artikulutan

Agentziak | MADRIL

Atzo aurkeztu zuten boto partikularraren arabera, Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiko sektore aurrerakoiko zortzi kideak —PSOE eta IUk proposatuak— bat datoz CGPJk herenegun onartu zuen txostenaren «lerro nagusiekin», Alderdi Politikoen Legearen aurreproiektua babesten duen txostenarekin. Alabaina, puntu batzuen «zehaztasunik eza» eta zenbait gairen gaineko desadostasunak nabarmendu dituzte. CiUk proposatutako kidea, ordea, txostenaren aurka dago; aurreproiektuko zenbait puntuk Espainiako Konstituzioa «urratzen» dutela dio hark aurkeztutako boto partikularrak.

CGPJk Espainiako Gobernuari bidali zizkion atzo Alderdien lege aurreproiektuaren aldeko txostena eta edukiarekin bat ez datozen kideen bi boto partikularrak —aurka eta zuri bozkatu zutenenak—. Txostenak harrera ona egiten

dio aurreproiektuari, aldaketa txiki batzuk proposatzearekin batera. Alderdi bat legez kanpo uzteko eskatzea —Batasuna da jomuga— Gobernuari, Fiskaltzari, 50 senatariri eta 50 diputaturi dagokiela dio, eta erabakia hartzea, berriz, Auzitegi Goreneko Sala Bereziari. Bestalde, ez du ikusten legea atzeraginezkoa denik.

Haatik, alderdi bat legez kanpo uzteko eskatzeak Fiskaltzaren esku soilik egon beharko lukeela berretsi du sektore aurrerakoia, Luis Aguiar kideak idatzitako boto partikularran. Izan ere, eskaera 50 diputatuk edo senatarik egin ahal izateak «aniztasun politiko» eta «botere banaketa» arriskuan jarriko litzukeela uste du. Alderdi bat legez kanpo uzteko erabakia, berriz, Auzitegi Goreneko Zibileko Salak hartu beharko lukeela dio.

Bidenabar, legea atzeraginezkoa izatea bazterten du, hots, legea indarrean jarri aurreko jarduerak ez dutela

ALDAKETAK

Adolfo Pregoren txostenean aldaketa txiki batzuk egin ziren, «arazo teknikoei» begira. Ez sektore aurrerakoia konforme egoteko adina.

JARDUERAK. Proposatzen da ezingo direla legez at utzi «askatasunen erregimena kaltetu edota suntsitzea edo sistema demokratikoa eragotzi edota indargabetzea bilatzen duten alderdiak», beren «jarduerak» izan behar dutela helburu horiek bilatzen dituztenak. (8.2)

«GIZARTE ZATIKETA». Alderdi batek «gizartean zatiketa» sustatzea ilegalizazio arrazoien artetik kentzea proposatzen da. (8.3.b)

«ONURA POLITIKOA». CGPJk «onura politiko» kontzeptua kentzeko eskatzen du, «zehazgabe eta neurgaitza» delako. (8.2.c)

alderdi bat legez kanpo uzteko balio behar. Eta 8. artikuluko puntu batzuek «inkonstituzionaltasun itzal tinkoak» sortzen

dituztela dio, haien «zehaztasunik eza» arbuizatzeaz gain.

Bestalde, Alfons Lopez Tena CiUk proposatu kideak aipatu hiru puntu horiek Konstituzioaren kontrakoak direla dio bere boto partikularrean, eta aurreproiektuko beste hainbat puntu ere kritikatu ditu, zilegi ez diren jarduerak zehazten dituen artikulua (8.) eta «terrorismo delituengatik kondenatuek alderdirik sortu ezin izatea», besteak beste.

Elkarteen iritzi kontrajarriak

Fiskal, epaile eta magistratuen elkarteen iritzi kontrajarriak sorrarazi ditu aurreproiektuak. Demokraziaren aldeko Epaileak (JpD) izan da kritikoa. Haren ustez, Alderdien Legea ez da «terrorismoarekin lotutako jarduerak zigortzeko» erabili behar, Zigor Kodea eta Terrorismoaren Aurkako Legea baitaude horretarako. Lege aurreproiektuak «zalantza tekniko-juridiko sakonak» sortzen dituela dio. Francisco de Vitoria epaileen elkarteak, aldiz, «oso larria» iritzi zion CGPJ desadostasun politikoan isla bihurtzeari. Fiskalen Elkarteak eta APM magistratu elkarteak, ordea, CCPJren erabakia txalotu zuten.

kasuak zirela, zigortuak pertsonak izan zirela, eta ez alderdi edo erakundeak.

Are gehiago, Europako Kontseiluko Giza Eskubideen Auzitegiak Turkian gertatutako kasu baten gainean emandako epaiak ebatzitakoa aipatu zuen: «Auzitegiak erabaki zuen erakunderen batekin ideologikoki bat egiteak ez duela indarkeriaren sostengua zertan izan».

Halaber, Batasunaren ilegalizazioa soil-soilik «indarkeria defendatzen dutenentzako lagungarria» izan daitekeela berretsi zuen Imazek.

ESTATU KONTSEILUA

Txostena prestatzen ari da, ostegunerako

CGPJn onartutako txostena Estatu Kontseiluan eztabaidatuko da egunotan. Iñigo Cavero Estatu Kontseiluko presidentea atzo azaldu zuenez, Alderdien Legearen aurreproiektuari buruzko txostena ostegunerako prest izateko «ahal den guztia» egingo dute. Haren ustez, aurreproiektuaren %80arekin bat datoz Gobernu eta PSOE, eta desadostasunak



M. HERNANDEZ DE LEON / EFE
Iñigo Cavero Estatuko Kontseiluko burua, 1996an, kargua hartzean, Aznarrekin.

«estrategikoak» dira «ideologikoak» baino areago; baina «adostasuna» bilatzea komeni dela erantsi du.

Bi txostenek iritsi behar dute Espainiako Justizia Ministerioaren eskura, baina ez dute balio loteslerik, aholku gisa balio dute. Gero, Gobernuak lege aurreproiektua Ministroen Kontseilura bidaliko du, onartua izan dadin, eta azken pausoa testua Espainiako Parlamentura eramatea izango da, bertan tramitatzeko. Orain sortu den eztabaida Parlamentuan sakontzea espero dute oposizioko alderdiek, eta han gehiengoaren adostasuna lortzea.